

HONDARRIBIA


D. L. S. S. 122/86 imp. R. PÉREZ GARCÍA - 1.ª FOLIA 27. 01/11/86

10. Zenbakia

UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA

50 pta.

1987ko Urtarrila



JOSE MIGEL ELDUAYEN EMAZABEL dator gaur ale honetara, **Gure Pertsonaia**-ren orrian, Kai Berria dela eta ez dela herrian sortu diren kezak piska bat argitzeko.

Kofradiako Abata Nagusia denez, inork baino hobeto ezagutzen ditu gai horrek dituen aurre eta atzeak. Elkarriketa luzea, zorrotza eta bizia eskaini digu arrantzaile gizon gazte honek, eta oso interesgarritzat jotzen ditugu berak esanak, lurakur itzazu 3n. orrian.

Azal honetan bertan, **DROGA** eta **SIDA**k sortarazi behar digun kezka da nabarmen, beste herri askotan bezalaxe, gurean ere neurriak serio hartzen hasi beharra bait dago.

Gero, barrenean, betiko sailak aurkituko dituzu. **Herri Giroan** kale giroa duzu nagusi. **GUADALUPE ARTOLA** eta **MARTIN UGALDE**ren artikulu gozoak, **IKASTOLA** eta **AMA GUADALUPEKO IKASTETXE**ko lanak, **Herri Demografia**, **Arrantzari** buruzko hilerio bezala **ANDRES**en ikuspuntua, **Kirolak**, **Udaletxe**ko berriak, etabar, aurkituko duzu **HONDARRIBIA** zure aldizkarian. Gainera, **NEKAZARITZA** saillean, ohar garrantzitsua baserriar maizterrentzat.

Ez ahaztu euskaldunak garela, eta horregatik ateratzen dugula euskaraz aldizkari hau.

DROGA - SIDA

Drogaren arazoa herriak nola ikusten duen aztertzen hasten garenean, problema hau herriak nolabait asumitu egin duela esan daiteke. Droga hemen dago, eta, erreakzio ezari begiratu, badirudi betirako sartu zaigula, eta inpotente bezela gaudela.

Egia da zerbait egiten hasi dela gizartea, baina mediorik gabe aurkitzen dira gehienetan, drogaren aurka dabiltzanak.

Orain arte, bi aldetatik sortu da batez ere kezka: bata, drogak afektatuak dau-denak eta bere etxekoan aldetik; eta beste, lapurretak eta delinkuentziak sortu duen biddurak eraginda.

Sendatu nahi duen drogadikto eta euren senideek nahi dute zerbait egin, baina arazoa oso latza denez, zaila zaie helburuak lortzea eta guztiz penaturik dabilta.

Sekuritate ezak sortzen duen haserre, berriz, horte geratzen da: haserre eta amorruan.

Droga bezela jotzen ditugun produktoen zerrenda bat egin dezagun. Lehenbizikoa, **alkooola** da. Alkooolak izugarriko kaltea egiten dio osasunari eta baita gizar-teari ere, baina gehienetan familia mailan bakarrik sufritzen delako, ez diogu garrantzirik ematen.

Gaur gaztediak asko edaten du Hondarrribian, eta graduazio altuko alkooola gainera. Batez ere asteburutan gazte as-

ko mozkor mozkor eginda dabil, eta hortik drogara igarotzeko pauso bat besterik ez dago. Okerrena da gaztetxoak alkooolari emanda ikustea, eta Hondarrribian ere 14-17 urteraino gehiegi edaten da, tabernetan adin horietakoei alkooola saltzea debekatua egon arren.

Tabakoa da beste droga legal bat. Honen aurrean esan behar da gaurko gaztedia lehengoa baino beranduago hasten dela erretzen, eta kontzientzia piska bat sartzen ari dela erretzaileen artean. Baina oraindik asko falta zaigula tabakoa- ren kalteak baztertzeko. Gainera, zigarroarekin hasi ezker, gazte batentzat ez da zaila porro eta halakotara igarotzea ere, horixe izanik askotan drogadikzioa- ren hasiera.

Medizina batzuk ere zerrenda horre- tan sar daitezke, drogak bait dira, normal- tasun haundienaz hartzen direnak. Bat- zuek lasaigarriak dira, loeragileak bes- teak, estimulagarriak beste batzuk. **Anfe- taminak** hemen sartzen dira, bai farmazia eta bai kontrabandoz eskuratzen direla, honetan ere kontrabandoa hasia bait dago.

Hortik gorako drogek bildur gehiago sartzen ditute, emaitza espektakularrak di- tuztelako. **Heroinaren** kontsumoa piska bat jetsi egin da. **Kokainarena** mantendu egiten da, edo akaso piska bat gora egin du. Eta **hachisak** berdin irauten du.



DRUGA - SIDA

Euskadiko datu hauek Hondarribira-ko ere balio dute, gure herria, zoritxarrez, puntan aurkitzen delako drogenaren munduan. Hondarribian droga asko kontsumitzen da, eta gazteadiak epe oso motzera latz pagatu beharko du drogarako zaletasuna. Baina ez du pagatuko gazteadiak bakarrik, baizik eta euren etxekoek eta herri guztiak ere bai.

Panorama hau alarmantea baldin bada, beste bi elementu berri datoz beltzagoa egitera: **S.I.D.A.** eta **CRAK**.

SIDA, droga batzuren ondorio bat da, nahiz eta beste bide batzutatik ere etor daiteken.

CRAK bere salneurri eta bereiztasun batzuzatik barra barra sartzeko arriskuan gaude, eta jende asko ukitu dezake. Beste edozein drogak bezalaxe, Crak-ek pertsona deshumanizatu eta anulatu egiten du, eta beste droga batzuk baino bizkorrago gainera. Kokainak baino azkarrago bereganatzen du crakek.

Gainera, besteak baino merkeagoa izanik, jende askok erosi dezake, beraz jende pila bat bihur daiteke drogadikito.

Merkeago izateak beste ondorio bat ere badakur: horrenbeste lapurretara ez dela egingo crak erosteko, eta orduan herria ez dela hainbeste larrituko eta kezkatuko, eta drogenaren arazoak ez duela inor mugitu eraziko.

Droga honen fabrikateek produkto gaitztoa ateratu dute merkaturatu, euren errez eta azkar aberasteko modukoa. Gure erantzuna ere gogorra, pizkorra, solidarioa, elkarrekin lana egitekoa, arazoa aguro detektatzeko izan behar du. Pertsona eta herria anulatu egiten bait du droga.

S.I.D.A., berriz, gero eta hurbilago dugu. Gero eta kasu gehiago agertzen hasi da. Lehen uste genuen SIDA urruti zebilela, baina gure etxeetan sartzen hasia da. Eta berehala hasten ez bagara neurriak hartzen, hemendik hamar urte-tara gure gizartea erabat galduko duen gaitza izango da.

Badago non egin lan. Badago problema ugari. Badago zertaz kezkatu. Badago non elkartu. Noiz hasiko gara?

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6retan, haurrentzat.
Arratsaldeko 7,30etan, Portuan.

IGANDEAN:

Goizeko 8retan, Guadalupen.
Goizeko 8,30retan, Betharranen.
Goizeko 9retan, Amuten.
Goizeko 11etan, Portuan.

Martxoak 1: Arratibel

MAIZTERRAK ESNATU BEHARRA

HONDARRIBIA aldizkariaren bigarren alean aipatu nuen bezala, hilabete honetan bukatzen da **MAIZTERRAREN LEGEA**, otsailaren 19an hain zuzen. Egun gutxi geratzen dira, beraz.

Maizterraren Legea 1980an egin zen, eta lege horrekin nahi zena hauxe zen: baserria errentan dutenak, eskubide osoa edukitzea modu onean erosteko, eta ez gaur egunean dauden prezioetan.

Gure herrian, maizter batzuk erosi dute euren baserria, eta beste batzuk hori lortzeko bidetan daude. Baina beste batzuk, berriz, alde batetik ez direlako enteratu, eta bestetik nagusiaren sartzeari bildurra ematen dielako, ez dira aprobe-txatu lege horrek ematen duen erraztasunaz.

Oraindik animatu ez direnei, hauxe esan nahi nieke: oraintxe duten aukera gaitzen badute, kontu hartu behar dutela otsailaren 19a pasatu ondoren, nagusiak erraztasun handia izango duela, guk uste duguna baino handiagoa, errentak eta salneurriak prezioz igotzeko, eta maizterrak kalera botatzeko ere.

Egia da Gobernua esaten ari dela beste bost urtetarako luzatuko duela lege hau, baina hau ez dago oso garbi oraindik, eta hobeto da zihurtasunez jokatu, esperantza faltuak eduki baino.

Norbaitek ezagutzen baldin badu baserritarren bat maizterra, eta oraindik ezer egin ez duena, lerro hauen bidez eskatuko nuke baserritar horri esatea, eta jakinarean gain jartzea zein aukera daukan

orain, eta ez gaitzeko.

Eta informazioa behar badu, onena E.H.N.E. (Euskal Herriko Nekazarien Elkartea) deitzeko, hantxe emango dizue eta informazioak onena. Telefonoak hauek dira: Tf. 65.35.68 eta 65.35.90, edo Tolosako Nafarroako Etorbidean, 6garren zenbakira hurbildu. Edo baita Cámaras Agrarias-etan ere.

Esne kontuak

Beste aldetik esan dezagun, gaur entzun dudane bezala, Europa Komunitatek esne-kuotak jarri nahi digutela. Beti hala edo hola moldatu izan gara baserrietan, baina kuota hauek ez dira jarriko aurtien produktutik esnearekin, baizik 1985an produktutik zenarekin, eta ez da inor kanpoan geldituko.

Dena kontrolatuko dute, bai zentralerara eramaten dena, bai kalean saltzen dena. Gure kontuen arauera, Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian 289.002 milioi litro esne produktutik ziren 1985an, eta produktutik horretatik %8 kendu behar da, eta hori izango da gure neurria.

Beraz oso beltza da gure etorkizuna, eta horretarako E.H.N.E. bilera batzuek egiten ari da, zer egin ikusteko hori gero erazteko.

Egunkari eta prentsaren bidez esango da ze mobilizazio prestatuko diren, eta zenbat eta jende gehiagok hartu parte, orduan eta errazago izango da kuotak ez jartzea. Eta ez pentsa "ba neri etziak ukitu", ze oraingoan ez da inor libratuko.

Ximon



MASIE ETXETIA

OHARRAK

TXANDAKO OKINDEGIAK

Otsailak 1: Martinez
8: Arratibel
15: Garmendia
22: Martinez

TXANDAKO BOTIKAK

Otsailak 2-8: Mayi
9-15: Iraola
16-22: Erauskin
23-28: Mayi

ANA MARI AGIRRE

Janaridenda

Guadalupe Auzoan Tel. 641773
HONDARRIBIA

Lapurrak eta lapurretak

★ Oraingo honetan ere, herrian gertatzen ari diren LAPURRETAK salatuz hasten gara. Lapurrak oso ezagunak dira, gainera. Hondarribiko jendea da. Ez diegu, ba, kulparik botako kanpotarrei.

Tabernak eta ostatuak izan dira tokirik maiteenak lapurretentzat: **Ortzadar** taberna, **Rafael** ostatua, **Danontzat** taberna eta **Antxiña** taberna. Baina jendea ere bizkor ibili da, eta lapur bat atzeman dute. Herriko gaztea, Francisco Javier S. izeneko, 18 urtekoa. Kalabozoko hotelean 3 egun igaro, eta segi aurrera.

Kotxeetan ere irrat, arropa eta denetik lapurtzen dute. Hamarren bat kotxe desbalijatu dituzte; Axular kalean, Ford Fiesta bati, 4 gurpilak; Talbot Horizon bat; bi ziklomotor, etabar.

Dudarik ez dago, lapurrak lasai dabiltzala. **Danontzat** tabernan, 100.000 pzt.; **Antxiña** tabernan, musika ekipoa eta 50.000 pezeta; San Pedro kaleko 67-2^aan, 50.000 pzt.; Arkolla karrikako **Beku-Oñan**, prismatikoak; San Nikolas kaleko 20^aan, pultsera bat eta 8.000 pzt.; Mendeluko **Gury** arropadenda; San Pedro kaleko **Lapitz** janari denda; Zuloaga kaleko **Sagarazu** janari denda; Jaizkibel etor-bideko **Villa Nere-Ametsan**, Santiago kaleko **Fuster** etxean; etabar...

Kalabozotik igaro direnak, hauek dira: F.J.S.R., 20 urtekoa; H.I.B. 18 urtekoa; A.M.S. 20 urtekoa; I.B.A. 22 urtekoa; J.U.G. 26 urtekoa; A.A.A. irundarra; E.M.P. eta J.A.R. autotan lapurtzeagatik; M.S.M. eta M.J.M. autobat erretzeagatik; C.O.C., M.C.I. eta J.S.E. etxetan lapurtzeagatik.

Musikabanda eta entzuleak

★ Hondarribiko musikabandak kontzertu bikainak ematen ditu tartean tartean Udaletxeko arkupean. Udaletxeko arkupeko ormark dira, dudarik gabe, musika, entzuteko suertetrik haundiena dutenak munduan, ba kontzertuak eurentzat bakarrik izaten dira ia ia.

Egia da negu partean eguraldiak ere ez duela laguntzen haraino joaten, eta hain zera edo euria ari duenean, ez dela oso atsegina han zutik aguantatzea. Izan ere, musikabandaren, kontzertua entzuteko benetako afizio latza behar da.

Azkenengo kontzertuan, lau eserleku edo sila bakarrik ziren. Guztira, 20 lagun izango ginen, gehienez, entzulego guztiak. Horrela, lehenbizi joan ziren laurak eseri ziren, eta besteak zutik. Eguraldi txarra, hotza, bustia, negu negukoa zen. Baina, tirai! han geunden musika entzuten.



Kontzertuak bi zati zituen: lehenbizi-koan, hiru pieza, eta bigarrenean bat. Ba, lehenbizi zatiak 20 minutu iraungo zuen, eta bukatzean, musiko guztiak **Etzeberriari** eta **Borda** tabernatara joan ziren "deskantsatza". Eta entzuleak? Ba, zuk ere nahi baduzu, zoaz tabernara musikoein batera, edo zaude zutik hantxe hotzetan, musikoak noiz etorriko diren zail...

Udaletxeko arkupeko ormark ez ziren mugitu. Baina musikabandak beste bide bat hartu beharko du entzule gehiago bildu nahi badu. Eta Udaletxeko Kultur Batzordeak ere serio planteatu beharko du zertarako eta nola eman behar diren kontzertu horiek, zeren **kunplitzeko** bakarrik direla ematen du.

Kontzertu horiek ez dute entzulerik eramaten, eta horrela doaz urteak eta urteak, planteamendu serioirik egin gabe, ikusten denez, eta jendea eraman beharrean, uxatuz.

Txakurrak eta kaka

★ Guk ez dakigu nola bukatu daiteken plaga honekin, eta "ideia konkurtso" bat antolatzea goaz gure irakurle artean. **Kale guztiak** zakur kakaz zikindurik daude. Gero eta zakur gehiago, orduan eta postre gehiago. Zakur kaka urrezkoa balitz, hondarribiarrak aberastuak ginatke: palatxo batekin etxe aurrera irten, minutu bakar batean kaka pila bat bildu, eta horra! kolpetik aberastu!

Baina, zoritxarrez, zakur kaka **kaka** da, eta ez urrea. Eta kalean gabiltzanak, ez dugu zergatik lurrera begira ibili behar aurrera baino, zakur kakak **eskibatu** ezinik, saltoka saltoka.

Kale Nagusiko taberna batean, **dozena** bat txakur dute!! Egunez lo, eta gauez zanga eta zanga, inori lo egiten laga gabe. Eta farrantatik heldu direnei, koska!

Gau erdiko kontzertua, edo **gau guztikoa**, ez da **Kale Nagusian** bakarrik. Herri guztian, han eta hemen, zakurraren zanga besterik ez da aditzen.

Horra hor zibilizazioa zakur batzuen mende. **Gure konkurtsoan parte hartzeko, ideia bat eman behar diguzu, arazo honen aurrean zer egin behar den esanaz. Ideia onena ematen duenari, sari bat emango diogu.**

Txoriak eta abereak

★ Jakina da elurra egiten duenean, txori asko jeisten dela menditatik behe alde-ra, elurrari ihes egin, eta tenperatura epe-lagoarekin janari bila. Aurtengo elurtearekin ere horixe gertatu da, eta kale inguruan egazti asko ikusi da.

Txori eta egazti hauen aurka altza dira bi ankako abere eskopetadunak, eta puni puni hotzez dardaraz zeuden txoriak hiltzen ibili dira. Egunabar eta ilunabarrak bildurgarriak izan dira, tiro eta tiro, zelai eta arboladitan. Hondarribiko aldeak zidudien horrenbeste polbora zarataz. Hurrengo elurtean ere berdin gertatuko al da?

Kartelak eta ejenploa

★ 1983ko abuztuaren 28ko Plenoan, Udalak herriko KARTEL GUZTIAK EUSKARAZ jarriko zituela erabaki zuen. Nola ez, eta Udalak berak ematen digu ejenplo-ri ederrena: "FRONTON POLIDEPORTIVO MUNICIPAL DE FUENTERRABIA" ikusiko duzu oraindik pilotalekuko orman. Eta egunez ez bazera ohartu, gaeuz argi eta guzti irakur dezakezu.

Hortik kanpora, nonahi ikus daitezke Fuenterrabia izeneko kartelak, bide bazterretan etabar.

JOSE MIGEL ELDUAYEN

Arrantzaleek aspalditik dituzten arazo larrietan, Kofradiaren buru egitea ez da bizkarrean arin arin eramateko zama. Garai batetan, Kofradiako **Abata Nagusia** izateak ez zuen, noski, orain bezalako buruko minik ekarriko. Gaur Kofradia enpresa haundi bat da, ekonomia eta sozial aldetik problema asko duen erakundea.

Hondarribiko Kofradiako buru egiten duen arrantzalea **JOSE MIGEL ELDUAYEN EMAZABEL** da, ezkondua, hiru seme eta alaba baten aita. Bera dugu herriko **ABATA NAGUSIA**, eta berarengana joan gure, arrantzaleen problemarik nagusiaren iturri garbi eta zuzenetik jakin nahian.

Lehen baino arazo gehiago

—Ez da orain lehenbiziko aldiz Abata Nagusia zarela.

—Zortzigarren aldiz naiz, oraingoa- rekin, kargu hau eman ditadela. Oraingo era honetan gehiena neri tokatu zait.

—Zenbat urtekin hasi zinen itsasoa?


—Garai hartan ez zen orain bezala, hamairu hamalau urtekin hasten ginen. Eskola bukatu gabe, etxian ez zen ezer eta itsasora juan behar... Lehenengo txalupa txiki batekin hasi nintzen, durdullakin, txipiroitan, langostatan, eta hola. Gero aitat bere barkura eraman ninduen, **MADRE DE GUADALUPE**ra, "Tuku-Tuku" deitzen dioten horretan. Orain dela hogeitaz urte patroil nago.

—Abata Nagusia bezala noiz izan dituzu problemarik haundienak, lehen ala orain?

—Ez, problemarik haundienak orain dira. Oraingo Europar sartu beharrarekin eta, asko ibili beharra. Sardu gero komunidadean, baina urte latzak pasatu beharko ditugu, ze ikusten dugu urte gogorak datoze. Aste honetan bertan hiru batzarra ditugu, Donostian, Gasteizen, eta hola. Eskotako triangulua ere airean dugu oraindik. Asko ibili beharra dago. Atuna ere 3 milloi kilo ditugu oraindik saldu gabe Bizkaia eta Gipuzkoa.

—Zergatik gertatzen da hori?

—Kanpotik ekartzen dutelako, mundu gutzitik sartzen da arraia hemen. Lehengo gobernuak txarra omen zala, baina orain sozialistekin okerrago gaude. Lehengo gurekin hitz eginda jartzen zuten arantzelat hartzen zuten arraiari, baina orain ez dute deus kontatzen sektoriari. Jendea larri dago, kostera gaitien dugu, eta lehengo oraindik saldu gabe. Komunidade asunto honek gauza illunak ekarri



dizkigu momentuan. Beurek esaten duten bezela, beste zazpi urtian edo gaizki pasatu behar dugu.

Kai Berriaren arazoa

—Europar sartzeak ekarri dizuena alde batera utziz, badakigu herrian bertan ere baduzuela nahiko problema orain. Kai Berriaren anplazioa edo haunditzea da herrian pil pil dabilen gaia. Zergatik behar duzue kai haundiagoa? Beharrezkoa da ala arrantzaleen kapritxoia da?

—Behar izango ez dugu bai? Hemen batzarre asko egin ditugu horren gaian. Jendiak ez daki zenbat sufritu dugun guk, Hondarribiko arrantzaleak, kaia ez izana. Lehengo Gobernuak in Abata Nagusia bezala hasi nintzenian biase asko egin ditugu Madrila, baina Gobernu Zentrak ez zigen kasurik egiten. Txanpona guztiak hemendik hara eraman, eta guri behin ere kasurik ez zigen egin. Ibiltzen ginen itsasotik egunak galtzen, itsasua zakartzen zenien, askotan arraia laja itsasuan eta barra txarra, eta portu txikia eta tokirik ez eta, barkuak ondura jotzen... Itsasotik etorri, eta ura hartzeko zerik ez, jela hartzeko ere tokirik ez, txol gaizki eta txol penatuak ibili gara.

—Nor izan zen anpliatzeko ideia eman zuena?

—Hemen etorri zen gizon famoso bat, Malagakua, **FERNANDO HUET**, harek eman zuen pausu gogorra. Lehenagotik ibili zen Iribarren, irundarra, baina puertua txikia geratu zen. Mutil hura gaztia zan, eta ezagutzen zuen mutirik indarra bazuela, burutsua zan, hori hasi zan, Kaiako mutur famoso hori harek egin zuen.

—Batzuk esaten dute zuek nahi du zuena, lujoa dela.

—Bai, gu txol penatuak gaude esan diren astokeriatik, plaia galduko dela eta. Ez, ez, hemen beharra haundia da. Larogeita hamar ontzi bagara hemen, eta Gipuzkoan arrantzako porturik inportanteenetakua da Hondarribia. Arrantzan buru ibiltzen gara Gipuzkoan. Gure puertua txikia geratu da, ontziak ere haunditu egin dira denbora batetik honera, eta hor jendia eguraldi txarra ekartzen duenian eta bertan gizonak juaten dira, motoristak, patroiak eta motorra martxan jarri eta barkua beti zaintzen. Ez da puertua zerrtua, ez da ondo bukatua, haiziak jotzen du suroestetik.

—Instalazioak ere zabalagoak behar al dituzte?

—Horixe, zuk esaten duzuna, sariak ere atera egin behar, arraia ere bai, eta gaizki ibiltzen gara. Guk ondo bukatu nahi dugu puertua.

Batzuk alde, beste batzuk aurka

—Laguntzarik ba al duzue horretarako?

—Euskal Gobernuak esan digu Euskal Herrian lau puerto nahi duela ondo jarri: Bermeo, Ondarru, Getaria eta Hondarribia. Laurak bukatu behar dire, eta guria egiten ez bada, proiektua ez da bete.

—Udaletxetik zer laguntza, babes edo bultzada jaso duzue?

—Herriko etxian bi edo hiru batzarra egin dituzte. Gu, badakizu, aurtengo udan itsasoan ibili gera, baina Esteban eta gure Sekretariua hasi ziren kezak hartzen, kontzejal batzuk kontra bezela zaudela eta ez zutela gauza garbirik ikusten. Oraintxe geratu gitanian, okubrian edo nobienbrian, hasi ginen gauzak mobitzten, eta esan bezela. Beste bi billera egin ditu-

gu, eta betiko astokeri mordo bat, puertua egiten bada hondartza galduko dala.

—Hondartzarena al da problemarik bizienā?

—Baietz esaten dute, olatu txikia sartzen dala eta. Hoiak ez dute ikusten gu itsasuan giñarian, igual arrai asko eta barra dana zerratzen zuela denboraliak. Orain, munduan dagon barrarik ederrena degu. Lehenago gizonak itoak dire, sei, eta hamar eta, urte asko ez dala oraindik, aita ta bi seme hementxe bertan galdut ziren atzenekuk. Eta orain, Jaungoikuari eskerrak, hura egin da, plaia ere ederra degu, Gipuzkuako ederrena, barra ere ederra. Eta puertua, lehen ibili giñen denbura gizonak badiruz jun, dirurik ez zegoela, eta orain Eusko Gobernuak puertua egin nahi, eta orain herritik datoz pegak.

Ez genuen uste Herriko Etxetik horrenbeste **pega** etorriko zanik, hor kanpotik etorritako jendiak guk baino indar gehiago eukiko zuenik: "**horko espigoia puskatu behar dala, horko plaia galduko dala, olatu txikia sartzen dala**", holako astokeri mordo bat, eta gu jota eta izututa bezela geratu giñen, eta orain hasi gera piskat mobitzen.

—Nola ikusten duzue herriko jendea?

—Jendea ez dago gure kontra. Batzarre deitu genion herriari, eta etorri zan. Eta firmak ere ondo bildu dira. Baita jendea batzuek, ez dakit zer duten. Eta bi edo hiru batzarretan ere Alkatia jauna eta ere... ez, ez dute segitzen, badute presio pizarren bat edo zera dute, beldurra plaia-rena edo.

Plaia? Hasi Montero eta fabrikak eta, handik hasi behar da garbitzen. Guk ez dugu plaiarik zikintzen, gu udan itsasuan egoten gera.

Arrantzaliei esker lortua

—Askotan entzun dugu hondartza, eta futboleko zelaia, etabar, arrantzaliei esker eginak direla, Egia al da hori?

—Bai horixe, guri eskerrak daude gauza hoiak herrian, eta Herriko Etxiak ez du deus gastatu. Turismoa behar dala? Gu ere horren alde gaude, eta gustatzen zaigu herria jendez betia ikustia. Baina alkatia mutur hura egin zalako dago halako plaia, eta klub nauitokoa, eta bide ederra, eta orain polideportibua egin behar duten lekua, eta hainbeste eta hainbeste mila metro kuadratu jendiak aprobetxatzeko.

—Zuek ere aprobetxatuko duzue, ezta?

—Bai, baina puertu hobia behar du. Gainera, injinieruak garbi esan du hondartzari ez diola kalterik egingo puertu haundiak, eta Euskal Gobernuko gizon jakintsuak ere horixe diote. Guk zuzmo,

hori daukagu, ia Hondarribia turismorako bakarrik nahi ote duten... Guretat, ordia, gure Kofradia badakigu bera dala zaharrena, mila ta hirurehun ta hirurogeita batian egiña (1361).

—Nola aurkitzen da arazoa gaur egun, hainbeste problema ondoren?

—Lehengan izan degu billera inportantia, asti hontan. Izandu gera Bermioko Presidentia, Bermioko Alkatia, Ondarruko Presidentia eta Alkatia, Getariako Presidentia eta Alkatia, eta Hondarribitik ni bakarrik. Gure alkate jauna bakarrik ez zen agertu, eta min haundia eman zidan. Eta nik esan nion Gobernu Vasco-kuari ia gure alkatiari bialti zion inbitazioa, eta "**bai** —esan zidan— bialti nion inbitazioa", baina ez zen azaldu. Beste denak han ziran, guria bakarrik ez zen agertu, eta neri ez zidan ezer esan, ez zuela posible etortzia edo zer. Nik pena haundia hartu nuen. Nik ez dakit zer ikusten duen edo zer.



—Gobernuak laguntzeko prest da goela esan omen du.

—Bai, bai, Gobernuak ate guztiak irekita ditu. Baina aurtan baziela 30 milloi, eta Herriko Etxian gauzak konpondu ez zituztelako, Oriore eman zuzkionten milioiak, eta orduan esan zion Gobernu-koak hola segitzen bagendun, portua egin gabe geratuko zala. Eta hasi giñen mobitzen, eta jun giñen alkatiakin egotera. Lau jun giñen, gure Sekretaria, Esteban, Juanito eta lauok alkatiakin bastante borrokan ibili giñen, informia behar zela eta. Nola informia? Informia ez al du ba bialti Losada injinieruak faborabla? Zeren kezka dizie ba? Alkatiak esan zion kontzejal-ak nahi zutela **informe más amplio**, eta deituko zigula informea zetorrenian, eta ez zion deitu. Egunak aurrera juaki ziren, eta ikasi nuen batzarra bai zela Donos-

tian. "**Batzarra Donostian?**", eta zein?, eta herriko Alkatia, eta partidu politikuen errepresentantia hor zirela, Herri Batasunekuk, Euskadiko Ezkerrekuak, Penuekuak hor zirela. Orduan nik Alkatiari jardun nion: **Esan, ondo iruditzen al zaik gu arrantzaliek, Hondarribiko Presidentia eta Hondarribiko Kofradiko jendiak ez egotia reunio hortan?**" —"Hori guk egin diu eta, guk bakarrik egon behar diu ta"— "**baina nola? Gobernu euskaldunetik helduki, Losada Santander-ko gizon hori heldu dela eta Gipuzkuako burua dena ere helduki dala, eta gu Kofradia ez degula egon behar? Gu jun ingo gaituk**".

—Eta zer egin zenuten?

—Batzarra zen hamaiketan, eta gu jua giñen bederatzi t'erdia, hantxe presente. Hiru jua giñen hemendik. Eta, esan bezela, etorri zen Santanderko gizon hori Losada jauna, eta bestiak ere hasi ziren. Eta Herriko Etxeko alkatia eta ere agertu ziren, eta eskua eman eta "**gizon hauek etorri egin dira, eta zer egin behar dute?**" —"U, sartu ditezela barrura". Pazientzia haundiakin egon giñan, entzun eta entzun, azkenian lertu arte. Hor ikusi zen beurek esaten dutela ez daudela puertuaren kontra, baina ez dute egiten aurrera.

—Baina Udalak zer postura hartu zuen?

—Ba reunio hartan, beste partidu politiko bateko kontzejal batek, danon aurrari galdetu zion alkatiari: —"**Bueno, zuk zer edo zer esan zazu?**" baina alkatiak ez zun hitzik esan. Dena aditu, eta hitzik ez. Eta guk pena haundia hartu genuen, oso penaturik etorri giñen. Ondo ikasi deguna da partidu batzuk kontza daudela, baina beste batzuk alde. Eta jende asko ere bai, gure alde.

—Bukatzeko, Hondarribiko arrantzaleen Abata Nagusi bezela, euren ordezkari eta lehendakari zarenez, zer esango zenioke herriari?

—Lasai egoteko, eta konfiantza idukitzeko, bihotza zabalez burua ere konprenditzeko arrantzaliek behar dugula obra ere egin. Guk pakia nahi dugu, eta min haundia hartuko gendukela hori ezin badugu egin.

• • •

Honela bukatu genuen elkarrizketa luze hau, igande eguerdian, Bentako etxean, Hondarribiko Abata Nagusiarekin. Gure nahia herriarrei argi eta garbi azaltzea izan da Kai Berriko obrei buruz dabilen etzabaidaren alde hau.

Eskerrak ematen dizkiogu JOSE MIGEL ELDUAYEN jaunari, eta suertea izan dezala bere lanetan.

LAU URTE

Lau urteko haurra den Maiteider, eskolar aurreko urtean baino askoz lasaia-gau doa. Ba ditu lagunak eta bidean topatzen dituen haur haundiagoak identifikatzen ditu.

Andereñoak egunero egun ona opatzen dio eta Maiteider bada gauza aurtan andereñoari erantzuna emateko eta noski gauza berdina opatzeko. Baina ez da andereñoaren ondoan geratuko. Nahiago izaten du, azkar-azkar, gelako haurrengana hurbildu.

Hor elkartzén dira denak, berokiak etabar itxekitzen diren armarioaren inguruan eta gaineke arropak kentzen dituen bitartean hasi da elkarriketa bizian bere lagunekin. Hasi zaien kontatzén bere bizitzako bukaezinezko eta oso interesgarri diren abenturak eta esperientziak. Gehienetan bere kontakizuna honela hasten duelarik: "Ba dakizu zera?"

Maiteiderrek iaz ezin zitzaizkeen biak batera egin: hitz egin eta arropak kendu. Aurtén ordea ikasi du, ohitura bihurtu zaito. Maiteider oso berritsua denez, biek

batera (hitz egin eta berokia, txanoa eta eskularruak kendu) ez balitu egingo, eguna deus gutxi egin gabe pasatuko litzaike.

Eta hola, berriketan jarraitzen duen bitartean berehala kendu ditu gainekeak eta bere lagun Urko kuttunaren zai egoten da, haren atzetik gelara joateko eta elkarrekin jolasteko.

Egun ona pasa, Maiteider!

Guadalupe Artola

ARRANTZALE HEGALARIA

Askotan ikusten ditugu Hondarribiko itsasadarrean. Txingudiko badiatik beheara, arrantzan dabilztan hegalarri beltzaran ilun batzuk: kaio zuriak bezala dakite ur gainean kulunkan egoten, baina kaioak ez bezala murgiltzen dira bertan eta beste nonbait, askotan urrun, agertzen dira bat batean itsaspeko txoriak.

Lehendabizikoz ikusten duenarentzat, harriarria.

Eta ur gain-gainean hega polit eta azkarraz itsas sestran ibiltzen den hegatzia da.

Batzutan, bakarti; bestetan, bikotea; sei-zazpi elkarrekin jolastén ikusi izan ditut Butron ibiltokitik. Hondarribia bertako begiak ohitura daude mirari honetara; hala ere, lehorreko garenok ez gara behin eta berriz gertakariari begira nekatzen. Lehortar hau berez, edo ofizioz, ikusbera denez gero, galdezka ere jarria da. Eta bada, noski, txori berezi hauen izena eza-gutzen duenik: "gabarrasa" da, esango dizu dakienak, eta "pottorro" ere deitzen diote batzuk.

Baduzui, beraz, nondik hasi bila, ni

bezala kazetari bazara.

Azuek, gabarrasari "ubarroi bolborin" deitzen dio; Lhandek, "uharroia, itsas-belea"; Kintana eta bestek egindako hiztegiak: "uherroi, pujanta". Ez dabilta hiztegiak bata bestearengandik urrun.

Martin Itziar Agirrek (1) bi neurritakoa bereizten ditu: **Ubarroi** handia, 0,90 zent.: "jantzi beltz azpi zuria du normalean —dio— baina ezkontzerako beste berri bat jaxten du, zeharo beltza, galtza eta lepopean zerrenda txuria, eta taldean hegoan dijoazenean, «V» ozkeituaz joan ohi dira".

Sail haundiek arkaitzetan egin ohi dituzte, kabiak.

Eta bestea —jarraitzen du poetikoki deskribatzen— **Ubarroi** balborin, 0,75 zent. luze. Honek bestearen antz handia du, txikitoxoagoa izan arren. Honen ezkon-soinekoa zeharo beltza da, zati zuririk gabe; buru gainean, motots beltza tente jarriaz; inoiz bikote bakartiren bat ikusi ohi da, baina hauek ere itsasertzeko arkaitzetan, talde haundietan, egiten dituzte kabiak.

Lehen esan dugu, Hondarribian bi izen jaso ditugula: **gabarrasa** eta **pottorro**.

Jakin ahal izan dugunez, **gabarrasa** da hemengoa, hemen bizi eta ikusten duguna; **pottorroa**, berriz, txikiagoa da eta itsas-belea ere deitzen diote, eta behe-runtz eta goruntz pasako hegatzia da; itsasgizonek diotenez, bere kantuak ekaitza iragartzen du.

Ez dakit Euskalerrian belearekin lotuta dugun beste esatera batek horrekin zerikusirik baduen: "Belak etxe baten inguruan hiru bira egingezkero, hiru asteren barruan norbait hilko da etxe atan" (2).

Neuk **ARRANTZALE HEGALARIA** izenburutaz aukeratu dudanean, beste zerba it adierazi nahi nuen gainera: Nonbait, Txinan uharroi handia arrantza lane-tarako erabili ohi da: lepoean eraztun edo anilo bat jartzen diote, harrapatzen duen arraina irentsi ez dezan.

Ez da inoiz berandu gauza berriak ikasteko, eta hemen **gabarrasa** arrantza lanetan jartzeko.

Martin Ugalde

(1) Gure txoriak. Kuliska sorta, 61. Itxaropena, Zarautz, 1966.

(2) Euskalerriaren jakintza, 1, 221



S. Pedro kalean Tel. 642734
HONDARRIBIA

ARROZENA - ALBISTUR

Harategia

Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobeak

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

TXUNTXUMELA

Belardenda

Santiago Kalean HONDARRIBIA

GOIKOETXEA

Janaridenda

S. Pedro kalean, 51 Tel. 641029
HONDARRIBIA

EROSLE

Santiago kalean

Tel. 641540

HONDARRIBIA

PABLO GALARZA ITO DA

Itsasoak gizon asko eraman izan du Euskal Herriko bazterretan, eta oraingoan gure herrian hain ezaguna eta maitea genuen PABLO GALARZA errenteriarra izan da. Urtarrilaren azken egunak ziren, eta txalupa bere tokira eramatera joan zenean, uretara erori —nola eta zergatik ez dakigu— eta itota aurkitu zuten handik ordu gutxitara.

Ezbehar hau herritik 40 metrotara, Butron Pasealeku aurrean gertatu zen. GOIAN BEGO.

ANTXUAREN GATAZKA

Antxuaren kostera gain gainean duguanean, berritxo ere hasi dira kakazten Europako Komunitate bedekintatu horren erabakiak.

Bruselasen egin dute lizentzien banaketa: 53 Gipuzkoarako, 60 Bizkairako, 42 Kantabriarako, 4 Asturiaserako, eta 1 Lugoarako.

Kontuan izanik 285 ontzi direla antxuetan egin behar dutenak, ez da zaila pentsatzea ze gatazka sortzen den lizentzia bakar horiekin.

Berehala sortu da arrantzaleen haserrea ere. Ez, jakinean ez zeudelako horiek izango zela lizentziak, baizik eta leporaino daudelako GEURE URETAN ibiltzeko eta lana egiteko halako paperean zai egon beharrekin. Eta atzetik patrullera frantzesak barkuak atzematen.

Modu honetara, barku erdiak ere ezin dira joan antxuetara, berrak bezala.

• • •
Berri pozgarri bezala jo behar da Itsasoko GURUTZE GORRIAK Hondarribian jarri duen salbamenduko ontzi berria. Tresna hauek beharrezkoak dira, gutxien uste denean euren beharra izaten delako. Ontzi hau oso bizkorra da, eta premian aurkitzen diren arrantzaleentzat mesede handikoa izango da.

Bestalde, zenbat aldiz aipatu den HELIKOPTERO baten beharra. Hauxe ere urrutiko gabe behar da, eta hemen aireportua eta guztiak edukirik, toki hoberik ez dago salbamenduko helikoptero batentzat. Noiz izango dugu halako lasaitasuna, jakinean itsasoan zerbait larria gertatu ezker, berehala han izango direla bai ontzia eta bai helikopteroa?

Kontuak kontu, inork ba al daki hegazkin horren berririk, hau da, inoiz izango dugun? Ze jestio egin da hori lortzeko? Non daude eragozpenak? Ziklisten karreteran eta nonnahi ibiltzeko badira. Zergatik ez kostarako?

URTE BERRI, ESPERANTZA BERRI

Urte zaharrak izugarriko eguraldi txararekin eman zigen agurra arrantzaleoi. Urte berria ere ez zen hobeto hasi. Arrantzalea itsasora joateko desiatzen dago beti, hortxe daukagu eta gure lantegia, eta gure ogibidea. Baina eguraldiak agintzen du, eta haren mende bizi gara, nekazariak bezala.

Urtarrilaren 2 da gaur. Barku guztiak amarratuta aurkitzen dira. Biharkotz ere ez da itxura hoberik. Hasiera exkaxa urteari eman dioguna.

Nork jan dezake arraina?

Arrainaren prezioari buruz ere bada-gor ez esatekorik.

1986ko abenduaren 23an hautsi ziren legatzaren salneurri guztiak. **Rekord** altua jarri zuen egun horrek. **Orain arte inoiz ezagutu ez den prezioa** egin zuen legatzak egun horretan: **3.263 pzt. legatz kilo.** Nik ez dakit nork jango zuen, baina ez edozeinek.

Beste salneurriak, honela ibili ziren: **Arrosela, 2.764 pzt.** Lehenago erraza-goto jaten zen, bai, arrosela, Gabonetan. Orain, lujo bihurtu da, eta pobreen sukaldetan ez da arroselarik ikusiko. **Legatzak, 2.452 pzt.** eta **Peskadillak, 1.350 pzt.**

Txitxarroak ere estimazioa izan zuen Eguberri inguruan, **237 pzt.** egiteraino, baina San Silbestre bezperan berritxo ere behera egin zuen, **124 pzetetara** eroriz salneurria.

Kai berriaren arazoak

Abenduaren 27an izan genuen Kofradian Batzarre Orokorra. Arrantzale denok joan ginen, eta han azaldu ziguten nola dagoen gauza. Giroa nahiko nahastua dago herrian. Arrantzaleok beharrezkotzat jotzen dugu Kai Berria haunditzea. Eta obrak hastera zihozazela, Udaleko zati batek ez duela nahi obrak egiterik.

Esaten dute Hondarribiko turismoari kalte egingo diola Kaia haundiagoak, eta hondartza izurratu egingo duela. Baina egin diren estudioek ezetz esaten dute, hondartza lehen bezala geratuko dela.

Guk ere ez dugu nahi turismoa izurrratzerik, baina arrantza **industria garrantzitsua** da gure herrian, eta zaindu egin behar da. Arrantza galdutako delat esaten dute beste batzuk, baina barkue-tan inbertsioa egiten duenak, ez du hori pentsatzen. Gainera, gaizteentzat ere hortxe dago itsasoa.

Hondartza ez da galduko

Guk ere maite dugu gure herria eta herriko gauzak, eta beste batzuk baino gehiago akaso, hemen jaio eta bizi gare-lako. Baina **AURRERA EGIN NAHI DUGU**, interes guztiak zaindurik, bai turismoa eta bai arrantza. Guretzako beharrezkoak bai dira gero eta instalazio ho-beak eta toki erosoagoak lana egiteko.

Kontuak kontu, gu itsasora!

Eguraldia gozatu denean, berritxo ekin diogu arrantzari.

Urtarrilaren 5, 7, 8 eta 9an, arrain gutxi atzeman dugu, eta prezioak lainotan egon dira. Batz bestea, eguneko **800 kilo legatz** ekarri dira, **2.200 pztan.**; **1.800 kilo mediana**, **1.800 pztan.**; **500 kilo peskadilla**, **1.150 pztan.**; eta **250 kilo arrosela**, **1.600 pztan.**

Arrosela 1.000 peseta jetsi da egun batzutan, ikusten denez.

Urtarrilaren 12an, 9an ekarritako saldu zen. **400 kilo legatz**, **1.650 pztan.**; **600 kilo mediana**, **1.450 pztan.**; eta **200 kilo peskadilla**, **1.160 pztan.**

12tik 18ra eguraldi txarrragatik, barku guztiak etxean egon dira.

19tik 24ra arrantza onak egin dira, eta prezioak guztiz erori dira: **legatza**, **900 pztara**, mediana **780ra** eta **peskadilla 650ra**.

Agur, otsailaren bukaera arte.

Andres



KASINO ZAHARRA AMERIKETAN

Alberto Lasa jaunak, Caracas-eko egunkari baten fotokopia bidali digu, non Hondarribiko Kasino Zaharraren argazkia ikusten da. Izenburu "Réplica de un castillo español construyen en Calabozo para escenario de película nacional".

EL SIGLO da egunkari hau, eta bertan dio, Hondarribiko gaztelu baten irudia ari direla egiten El Hato-La Mantequeña, El Sombrero-Calabozo bideko 38n. kilometroan, "EL SEÑOR DE LOS LLANOS" pelikulako tokirik garrantzitsuenaren izan dadin.



HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

HERIOTZAK

1986

ABENDUAK

18: LUIS Emazabel Olaso.

61 urtekoa - Hondarribiarra.
San Pedro, 29.

20: SABINO Lekuona Lekuona.

61 urtekoa - Hondarribiarra.
San Pedro, 53.

20: MELITON Urrangarain.

65 urtekoa - Hondarribiarra.
Gure Patxara etxea. Amute.

25: ANTONIO Santiago Velasco.

86 urtekoa.
Ubilla, 8.

31: ROSA Sorzabalbere Zabala.

83 urtekoa - Hondarribiarra.
San Pedro, 5.

1987

URTARRILAK

1: MANUEL Garmendia Duinat.

65 urtekoa - Hondarribiarra.
Zuloaga, 12.

2: MANUEL Ramirez Sanchez.

63 urtekoa.
Matxin de Arzu kalea.

12: ABEL Moreno-Arrones Sevilla.

80 urtekoa.
Harma Plaza, 10.

19: MARGARITA Martin Garzia.

48 urtekoa.
Urano etxea - Mendelu.

23: JON IÑAKI Zubillaga Loinaz,

"Gaztea".
32 urtekoa - Hondarribiarra.
San Pedro, 5.

23: BENITA Clemente Martinez.

77 urtekoa.
Josu Langile, 3.

27: JOAKIN Sagarzazu Zinkunegi.

69 urtekoa - Hondarribiarra.
Guadalupeko Ama, 5.

EZKONTZAK 1986

ABENDUAK

13: ARMEL Yves Le Saout Latour - 41

urtekoa - Hendaian bizi dena.
MANUELA Zabalegi Maiz - 41 urte-
koa - Irunen jaioa eta Hondarribian
bizi dena.

13: JOSE ANDRES Elozegi Arregi - 31

urtekoa - Irundera.
JUANITA Alkain Eizaguirre - 29 urte-
koa - Hondarribiarra.

20: EUSEBIO Salaberria Mullor - 23 urte-

koa - Hondarribiarra.
M.^a PILAR Arozana Larruskain - 23
urtekoa - Hondarribiarra.

20: SECUNDINO Neira Garcia - 27 urte-

koa - Pasaian jaioa eta Donostian bizi
dena.
ANA Fernandez Manterola - 20 urte-
koa - Donostian jaioa eta Hondarri-
bian bizi dena.

1987

URTARRILAK

2: JOSU Alkain Eizaguirre - 26 urtekoa -

Hondarribiarra.
MIREN EDURNE Lazkanoiturburu
Manterola - 24 urtekoa - Donostian
jaioa eta Hondarribian bizi dena.

3: MARCOS Emazabel Goienetxe - 23

urtekoa - Hondarribiarra.
ANITA M.^a Felce Mielgo - 25 urtekoa -
Parisen jaioa eta han bizi dena.

JAIOZAK 1986

ABENDUAK

17: IÑIGO Elzo Aseginolaza.

Ignacio eta M.^a Joseren semea.
Gebara-enea etxea - A. Alonso kalea.

18: SERGIO Sanz Moraza.

Fernando eta M.^a Carmenen semea.
Fraxkueneko Murrui, 7.

20: ANA Alonso Martin.

Pablo eta M.^a Concepcionen alaba.
Biteri, 2.

25: JON MARTIN Valencia Murua.

Jesus Antonio eta Maiteren semea.
Nere Ametsa - Jaizkibel kalea.

27: MAORE Sagarzazu Zurutzu.

Serafin eta M.^a Aranzazuren alaba.
Barrenetxea baseria - Semisarga.

23: ANDONI Arranbide Rangel.

Javier eta M.^a Angelesen semea.
Fuster, 2 - Santiago kalea.

28: ELISABET Rodriguez Pisador.

Leoncio eta M.^a Cruzen alaba.
Denda, 2.

28: AMAIA Elvira Sagarzazu.

Juan M.^a eta Margaritaren alaba.
Izenea baseria - Baserritar et.

1987

URTARRILAK

2: MANEX Karton Etxeberria.

Jose Manuel eta M.^a Doloresen
sema.
Haizeder, 3.

3: IBON Altuna Figeroa.

Jose Martin eta M.^a Cristinaren
sema.
Rekalde etxea - Santiago kalea.

12: MAIALENI Sistiaga Poveda.

Javier eta Rosarioren alaba.
Jeneral Leiba, 5.

14: URKO Sarasola Garzia.

Jesus eta M.^a Isabelen semea.
San Pedro kalea, 10.

22: IÑIGO Goikoetxea Gonzalez.

Bernard eta M.^a Begoñaren semea.
Gibeleta, 2.

25: ARKAITZ Ezeiza Legorburu.

Jose Ramon eta M.^a Doloresen
sema.
Bernat Etxepare, 5.

26: IKER Rodriguez Souto.

Jose Javier eta M.^a Carmenen semea.
Gibeleta, 3.

SAINDUA eta MASTI

Nork ez du ezagutzen Saindua? Aintzina Hondarribitik lehorrez irtezeko bide nagusia, errebidea, hortik zihoina, nahiz Lezo aldera edo nahiz Irunera. Semisarga auzotik (Zimizarga ere irakurtzen da 1787. urteko zentsoan) Jaizubia aldera. Mareagora zenean ez bai zen beste biderik, urez izan ezik. Horregatik, Saindua, bidezkoek toitz egiteko eraikia zen, "humilladero" deritzaizen horietakoa.

Sainduaren lehen berria 1521. urtekoztar dakar Florentino Portuk bere monografiaren 391. orrialdean. Luis Murugarrenek, "Relación de puntos religiosos de Guipúzcoa" deritzan lanean, Sainduaz gainera "Sto. Crucifixo" bezala ere badakar, 1587an. Baina handik berrehun urtera, Floridablanca-ren aginduz egin zen zentso hartan Saindua hutsik dator eta Gipuzkoako Nomenclátor-ean, 1857an, Saindua-santoru bezala aipatzen da, baina hortik izena hartu zuen ondoko etxea Sainduak.

Saindua oso jatorria iruditzen zaigu, batere zalantzarik gabe, zeren Hondarribia aintzina elizaz Baionako Apezpikategikoa zenez, Borts-hiriak, Bertiz harana eta Baztan bezala, eta euskalkiz ere goinafarreraz eta lapurterazkoa, geroztik gipuzkerarekin kutsatuz badator ere. Azken

mendeotan Saindua da lapurtar era jatorra eta ez da inondik ere harrigarri izen hori Hondarribian kokaturik aurkitzea, bertako euskararen forma zaharretikoa denez. Horregatik, Lonja berrian "Done Pedro Itxas-gizonen Kofradia" jartzea, gaitzerdi bada ere, ez da Hondarribirako erarik jatorrena. Hor ditugunez Perukeña (Peru izenetikako etxe izena) eta Saindua izen zaharrak.

Gaitzerdi esan dut, gaurkoan hori ez denez kezkatzen nauena. Sainduatik

aurreratxoago bada inolazko kezkarik gabe "La Copa" deritzen dioten bidegurutzea, duela urte guti koparen itxurazko loreontzia egin zutelako. Baina, toki hori, Masti ("mahasti"; 1787an Mastia, artikuluz) eta Kasanuebenea zeritzan etxeen artian dago. Eta Masti edo Mahasti izena itzultzea merezi du, besterik ezean kopa itxusi hori kenduaz, bere oroitza penik gelditu ez dadin. Lekuizenak jator gordeztza hizkuntzaren onuragarri bait da.

Juan San Martin



SAINDUA

ESKOLETAKO ORRIA

GAINEAN DITUGU, IRITSI DIRA

Otsailaren bukaeran Inauteriak ospatuko ditugu. Urtero bezala, haurren eguna ostirala izango da. Dirudienez, eskean ibiltzeko ohitura galtzen ari da, ez ordea, arratsaldeko mendari eta jokuna.

Ea eguraldiak laguntzen duen eta kalean entzuten ditugun Bordinak, egun hontarako, antolatuta zuten koplak:

Maskara, a, a, a,
Ziripoten ikara,
Miel Otxin zara
gu izutzen ez gara.

Maskara, e, e, e,
lukainka mutur mehe,
Austerre egun arte
gabiltza jo ta ke.

Maskara i, i, i,
ipurdia ageri
gaur dugu Inauteri
gaitezen liberti.

Maskara o, o, o,
gizen ta lodiko
txerrenen antzeko
fas hemendik betiko.

Maskara u, u, u,
Inauteriak ditugu,
altxa porru ta buru
Euskaldunak gara gu.

DENEN LANA

Aldizkari hau zababik dagoela idatzi nahi duen guztientzat ez da nobedadea. Baina dena dela, irakurtzen ari zaren orrialde hau, eskolako partaidentzat eta berezik iri, goi ziklo eta hortik gorako ikasleentzat gordea dago.

Hala eta guztiz ere, oso ikasle gutxi izan dira orain arte bere lanak bidali dituztenak. Motibazio nahikoa izan beharko litzateke norberak egindako lanak argitaratuak ikustea. Beraz, animo eta ea hemendik aurrera zuen lan sortak jasotzen ditugun, orrialde hauetan ateratzeko.

Bidal itazue zuen ipuin, bertso, kontakizun eta historiotoxoak. Hilabete batean lekunik ez bada argitaratzeko, bestean aterako da eta herriarrok irakurtzeko aukera izango du.

Ikastolako Txepetxak

AMA GUADALUPEKO IKASTETXEA

Euskarari bultzada bat emateko asmoekin, joan den Gabonetan ipuin lehia-keta bat prestatu genuen.

Hauk izan ziren irabazleak:

1.goi Mailakoak:
IDIOIA FERNANDEZ eta SHANDRA
SERGIO SANCHEZ eta LUIS ELORZ

2. garren Mailakoak:
SUSANA MENDEZ eta MIREN IZA
LUCAS MOREU

3. garren Mailakoak:
JON GARRAUS
IVAN AGUADO eta GORKA
ARBELAIZ

4. garren Mailakoak:
CRISTINA ALZA
AINARA ANCISAR eta MAIDER
ROMERO

5. garren Mailakoak:
ANDONI LARRA eta AITOR
GALLEGO
LEIRE ETXARRI eta LUPE
AMORROUTU

6. garren Mailakoak:
JON ANCISAR eta JUAN CRUZ
BARBARIN
REMI LAZKANOTEGI eta MIKEL RICO

7. garren Mailakoak:
ALFONSO GOMEZ eta ZENON
VAZQUEZ
RAFAEL ORTIZ eta IÑIGO
MUGURUZA

8. Mailakoak:
JAVIER SUSPERREGI eta J. M.
AMANTEGI
JUAN PABLO MORENO eta ALEX
SANTOS

Anutxi eta Josune

TRIATLONZALE BAKARRA HONDARRIBIAN

Hemen Hondarrribian, normalki ikusten dugu gasteria eta gasteria ez dena, kaletan zehar korrika, bai entrenatzen eta baita ere "jogging" egiten ere. Horietako bat dugu Joxe Migel Arranbide Iriazabal, hondarribiarra jatorra, 37 urtekoa, TRIATLON-etako oso fin entrenatzen dena. Bere eguneroko entrenamendu baten ondoren, elkarriketa hau izan dugu bera-rekin.

—Hi, Joxe Migel Triatlon zer duk?

—Ba, Triatlon prueba bat hiru zatitan sailkatzen da: Igeriketa, Atletismoa eta Txirrinda. Triatloko distantziak batetik bestera desberdinak izaten dira, baina, normalki neurriak honako hauek izaten dira: Igeriketa, km. bat; Atletismoa, 12 km. eta txirrinda 50 km.

—Nola hasi hintzen?

—Egunkari batetan irakurri nian Baionan prueba bat organizatzen zutela eta hara abiatu nintzen nere famili eta guzti. Hego Euskaditik 6-8 lagun alkatu ginen, 800 artean, eta, hango esperientzia ikusiaz, animatu egin nintzen Triatlon-eko probak egiteko, eta orain arte sei lekutara ran nau.

—Triatlon gogorra duk, eta ze preparazioa behar da?

—Bai noski, benetan gogorra duk, hirurik proba desberdinak direlako eta batetik bestera segidan pasa behar duialako, igeriketa bukatu eta berehala korrika hasi behar duk, eta hau bukatuta, hala! txirrinda hartu eta aire!


Ondo entrenatzeko, astean 3 aldiz ibiltzen nau korrika, egunean 14 km. eginez, beste 2 egunetan txirrindaz 70 km. eguneko, eta azkenik astean behin igeriketa ordu betean.

—Hitaz aparte bai al da beste Triatlonistarik Hondarrribian?

—Ez, behin batean Irungo Triatlon zela eta, pare bat ateraz ziren, baina hortik kanpora ni bakar bakarrik ibiltzen nauk, batzuetan nere famili guztiarekin.

—Jende askok hartzen al du parte?

—Beno, partizipazioa ezin daiteke beste deportekin konparatu. Ikusi behar dugu espezialidadea berria eta gogorra dela. Nere ustez jende dexte ibiltzen dela, adibidez, Gasteizen 140 lagun bildu



ginen, Donostian 208 eta iritsi ziren 183 atleta, eta katalan bat 66 urtekoa izan zen azkenekoa. Ondarroan, iterean 70 atleta elkarri ziren, 1.500 mts. igeri, 57 km. txirrindan eta 16 km. korrika egiteko asmoa-kin, ezta txantxetako, eh?

—La Joxe Migel, badakigu urterot Ni- zan munduko txapelketa ospatzen dela, eta zer?

—Bai noski, eta aurtan nahiko tenta- tua egondu naiz hara fatego, baina oso garesti jotzen du horrelako prueba bat egiteak. Aurtan Nizan 800 deportista abiatu ziren 3.000 mts. igeri, 120 km. bi- zikletan eta 32 km. korrika egiteko asmo- tan. Izugarriko gogoarekin neon aurtan Nizara fatego, baina ikusiko diat nola fa- ten den tenporada hau, eta gero ia, ia.

—Ordaindu eta saririk ematen al dute?

—Ordaindu, bai horixe. Muga alde honetara 1.000 pta. balio du izena ema- teak, eta beste aldean 3.000 pta. Eta sa- riataz, lehenbixikoarentzat normalki opa- riak, txandak, iratiak, zapatak eta abar izaten dira.

—Eta azkenik? Hondarrribian beste bat edo batzuek animatzen al dituk Triatlon egiteko?

—Bai, hasi dituk batzuek berotzen, aurtan zerbait egiteko asmotan, eta hau oso ona duk, zeren eta bat bestean arri- muan errazago eta, beste aldetik, mer- keago aterako zaigulako, batera eta bes- tera fatego.

Beno, Joxe Migeli agur esaten diogu, eta aldikari honetatik animatu eta es- kerrak ematen diogu berari, eta AUPA JOSE MIGEL!!

Erramun

SASKIBALOIA FEMENINOA

2n. Dibisioa

J. Eizaguirre eta bere neskek Hon- darrribio irudia oso ondo uzten ari dira, joa- ten diren leku guztietan. Bigarren di- bisioan egotea ez da gutxi, eta aurtan da gainera lehenbiziko urtea.

Euren helburua maila hori ez galtzea da. Bigarren bueltan daude, eta hamaga- rren doaz. Bere atzetik hiru talde geratzen zaizkio, eta... bik jetsi egin behar. Aurrera neskak!

Ikusleen aldetik gero eta gehiago dira ikustera joaten direnak, baina ez dira na- hikiak. Igandetan, eguerdiko hamabietan dugu aukera ederra gure herriko jokalar- i xarmanta eta ariñak ikusteko. Joan za- tezte, eta animatu neskak!

Juniors

Hauek oso ondo doaz. Aurretik bi ba- karrik dituzte, hau da, hirugarren daude

sailkapenean. Aurreko biak Donosti eta Juven dira, betiko nagusiak.

Txikiak ere, kadeteak eta jubenilak, hortxe dabilta euren gorputza sendot- zen, eta elkarrekin ekipoko lana egiten ikasten. Ze gauza ederra horrela ohitzea txikitandik. Gipuzkoako azken faserako klasifikatu dira. ZORIONAK!

Eskolarteak

Eskolarteko txapelketan infantil mail- an hamar talde dabilta txapelaren atze- tik. Dabilta edo ibili dira, zeren nahiko izerdi bota eta gero, ANAKA geratu da txapeldun.

Alebinen mailan, berriz, IKASTOLA izan da txapelduna, eta Mini-aurrean ere, berririo ere IKASTOLAKO taldeak irabazi du txapela. ZORIONAK GUZTIEI!

Juanjo

MENDIA

Euskal Herrian herriarik baldin bada mendirako zaletasun gutxiduna, Hon- darrribia izango da noski. Itsasertze-ko men- dirik haundiena (Jaizkibel) herrian bertan edukitzeak ere ez du afizio haundirik sortu hondarribiarren artean.

Hondarribiko Ikastola da, dakigunez, mendirako itereara bakarrik antolatzen duena, eta guraso eta talde bat biltzen da mendira bidean.

Ikastaro honetan, Aiako Harria (832 m.), Izaspi (970 m.), Mendaur (1.136 m.), eta San Anton-Kopako Harria egin di- tutze txangoak.

Otsailaren 15ean, IGUZKIKO-MU- ÑOA (1.093 m.) mendira joango dira. Mendi hau Nafarroako Ezkurran dago, eta handik, mendira igo ondoren, Leizara je- tsiko dira. Hiru-lau orduko bidaia da, eta, eguraldi ona egiten badu, txango zora- garria.

Uxo



DIRU HOBERIK EZ DAGO.



Diruak dakartzan eragozpenak pila bat izan daitezke, horregatik zurekin ez eramatea hobe duzu.

Horretarako, hauxe duzu soluziorik egokiena:
AURREZKI-KUTXA MUNIZIPALeko KUTXA TXARTELA.

Estatuko 2.500 kutzazain automatikoetan eskudiruan bihur dadin, eskua za-baldu besterik ez bait duzu egin behar. Eta horrez gainera, denda askotan eta Hondarribiko guzti hauetan dirurik gabe ordaintzeko baliagarria izango zaizu ere.

Eska ezazu oraindik ez baduzu.

KUTXA TXARTELA

Erosketak ordaintzeko balio handikoa.



Hemen, eros ezazu KUTXA TXARTELArekin. ■

RESTAURANTE ARARKA
Baserria Ararkoa

RESTAURANTE AINHOA
Beder Etxepare, 6

HOTEL ALVAREZ QUINTERO
Beder Etxepare-Esteban Miranar

RESTAURANTE AQUARIUM
C/ Zuloaga, 30

SUPERMERCADO SOKOA
Centro Comercial Sokoa

MUEBLES ALONDA
Centro Comercial Sokoa

ELECTROMUEBLES GEURIA
Paseo de la Victoria, 18

SESA
C/ra. Leizaola, 4 buzo

ELECTRICIDAD KAIA
Arrieta Ugarita

CALZADOS IRUSI
Arrieta Ugarita, 7 buzo

EDERKI
Arrieta Ugarita, 8

RESTAURANTE ARRAUNLARI
P. Beder (Etxe Arrieta)

MUEBLES MARTINEZ ORETXE
P. Pasa, 12

KUTXA
P. Pasa, 12

P. Pasa, 12

ROUTIQUE ROS
Pasa, 21

RESTAURANTE JAIZURIA
Paseo de la Victoria de Urkullu

RESTAURANTE BEKO ERROTA
B. Jaizurria

HOTEL JAUREGUI
San Pedro

TRALUPA
San Pedro, 41 buzo

ORITZ
San Pedro, 6

ITXAS LOPEZ
San Pedro, 65

OPTICA JAVIER
San Pedro, 12

San Pedro, 12

RESTAURANTE ARRANTZALE TXUKO
San Pedro, 22

RESTAURANTE ZERIA
San Pedro, 22

RESTAURANTE ITXASPE
San Pedro, 52

MAKESOL
San Pedro, 67

ELECTROMUEBLES GEURIA
San Pedro, 8

ASADOR MAÑOLI
Santiago, 41 buzo

RESTAURANTE OSTARTE
Santiago, 72

Santiago, 72

JUAN ALCAIN JAUREGUI S.A.
Zuloaga

BAR RESTAURANTE LA HERMANDAD
Zuloaga, 205

GAZTELU SPORT
Zuloaga, 18

ASADOR KUPELA
Zuloaga, 4

GAXEN
Zuloaga-Casa Martin-Exena

JOYERIA GARIN
Zuloaga, 16

REGALOS NORAY
Zuloaga, 16

Zuloaga, 16

**AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

UDALA

Plazara dantzara plazara...

Denbora batean hala joaten ginen gu, dantzan egin nahi bagenu Lamedara edo Udaletxeko arkupetara joaten ginen gure gogoak betetzeko. Hamaika pareja uztartu dira bertan, baina gaur egun ez da horrelakorik, gaur egun ez duzu Hondarribiko Lamedan edo Errenterikoan jende gehiegirik ikusiko dantzan, gaurko gazteek nahiago dituzte leku itxiak beren dantzatarako, ohiturak aldatu egiten dira eta hori legea da, lehengoak lehengo ohiturak, oraingoak berriak. Hau dena, **Hondarribian beste dantza leku edo "boite"** bat ireki nahi omen dute, baimenak eta eskatuak daude, eta obrak eginak edo egiten.

Dantza leku hau, Abarka Jatetxearen azpian jarri nahi dute, eta dirudienez bere arazoak ditu.

Joan den asteartean, hogeitazazpi auzokide hurbildu ziren Udaletxera bertako Hirigintza batzordekoekin hitz egitera honi buruz, eta benetako haserrea azaldu zuten, alde batetik dantza lekuaren aurka eta bestetik Udalaren aurka ere, obrak baimenarik gabe eginak omen daude eta Udalak ez duela ezer egin, eta honela jarraitzen bada dantza lekua laister irekia egongo dela, eta abar eta abar.

Hor dauka Udalak beste arazo bat konpontzeko, eta erabakia, denen esku-bideak entzun eta aztertu ondoren eman beharko du.

Mendelu auzoko Gibeleta etxeatako jabeak egon ziren Udalari baita ere hauen arazoa zera da, Poligono hura egin zuenak ez omen zuten hirigintza edo urbanizazioa ondo bukatuta utzi, eta zenbait problema sortzen omen die. Beste aldetik, Udalak zerga guztiak kobratzen dizkiela eta ez diela jaramon gehiegirik egiten.

Benetan hasarre zeuden Mendelutar hauek, hura ere herria dela, eta nolabaiteko irtenbidea eman behar zaiola gaiari eskatzen zuten.

Ez dakigu herrian delinquenterik izango den lanik gabe dagoena, baina hala ere, Udalak halako lanpostu bat sortzea dijoala laister. Lanpostu hau denboraldi batetarako izango da, eta oraindik ez dira kontratatzeke baseak onartu, baina dirudienez izenak ematen hasiak dira, eta norbait interesaturik balego, lehenbailehen Udaletxera agertzea komeniko litzaiok.

Artxibari Bibliotekari lanpostua betetzeko Jose Ramon Gebara izan zen aukeratua, azterketa guztiak egin ondoren, bi gelditu ziren, eta euskararen azterketa Kotek gaititu zuen, beraz, euskara jakiteagatik izan zen aukeratua,



horrek esan nahi du euskarari garrantzia ematen hasi beharko dugula, eta eguneroko bizitzan erabiltzen badugu, lanpostuak aurkitzeko posibilitate gehiago izango dugula, ea ba eredu bezela hartzen dugun.

Beste aldetik eta egin zen azterketa ikusi ondoren, hemendik aurrera Udaletxerako, euskara eskatzen den lanpostuetarako, horren azterketa lehenengoa izango dela erabaki zuten Udalak, honela ez da gertatuko ez dakien pertsona batek, beste azterketa guztiak egin beharrak izatea.

Carlos V. Hotela kokaturik zegoen lurzatan etxeak egiteko baimena eman du Udalak, bertan etxe txikiak egingo dira eta herriko langilegoa bizitzera joateko ahalmena izango du, hogeitahamar bat milioi kostatuko bait dute. **Honelako marxan Donostiako prezioak txiki utziko ditugu, eta agian herriaren izena aldatu beharrean aurkituko gara, guk Marbellondarribia proposatzen dugularik.**

Hori iristen den bitartean, badira ere batzuek herrian lantegi txikiak jarri nahi dituztenak ere, eta hortarako Eskabete izeneko lekuan, lantegi batzu jartzeko Egitasmo orokorraren (Plan Generala) aldaketak egitea eskatu diote Udalari.

Onartu egin da, eta lurzati hori ordentatzeko eta Plana egiteko arkitekto bat kontratatzea onartu du.

"HONDARRIBIA" aldizkarian idatzi nahi duenak, edo gure berri jakin nahi duenak, Udaletxeko 642340 telefonora jo beza, edo bertara joan eta Euskara Azpiatzordeak galdetu. Baita, Korreosetan Udalak duen posta kutxara (apartado de correosera) bidali idazlanak.

Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu, Butron Pasealekuaren azpian aparkaleku edo garajeak egin nahi litzuzkela Udalak, badakizue nola bertako paretak, itxasoak bere indarrarekin bota, edo zultatu zituen, eta hori berritzeak diru pila behar denez, aparkaleku horrekin diru hori lortzeko bidea bilatu nahi da. Ba gauzak borobiltzen dijoaz eta enpresa batek baino gehiagok galdetu du ea nola dagoen asuntua, interesaturik bait daude, bitartean Udalari, hori egitekotan, konkursoa edo egin beharko litzatekela pentsatzen ari dira, denei aukera berdina emanez.

Kultura batzordeak urtero banatzen dituen subentzioak banatzea erabaki zuten Udal Plenoak, eta honela izan ziren banatuak:

Amute Auzo Elkarte	50.000.-
Amute Auzo Elkarte (liburutegia)	100.000.-
Ikastola Dantza Taldea	50.000.-
Txanpa Musika Taldea	50.000.-
K.A.R.	312.000.-
Koru Parrokiala	100.000.-
Musika Banda (tresneria)	200.000.-
Musika Banda (jantziak)	180.000.-
Eskifai	700.000.-
Sororota Eskolaurra	60.000.-
Zine Klub	40.000.-
Herri Maitaleak	50.000.-
Cross Infantil (Peña Klink)	55.000.-
Biteri Eskola (laborategirako)	100.000.-
Mugalde Auzo Elkarte	50.000.-
Bidasoa Txirindulari Itzul.	175.000.-
Txanpa Arraun Taldea	55.000.-
Kilometroak 86	25.000.-
A.E.K.	560.000.-
Klink (euskara klasetarako)	100.000.-
Herri Urrats	25.000.-
Nafarroa Oinez	25.000.-

Baita ere onartua izan zen Udal enpleguatua euskalduntzeko izan diren gastuak ordaintzea, hauek 670.500.-, plazaratzen direlarik.